

ESKOLAKO

agenda 21

ARRASATEN

2004-2005 ikasturtean

URA
PROIEKTUA

Eskolako Agenda 21 zer den gogoratuz...

Eskolako Agenda 21 da hezkuntza komunitateak hartutako konpromisoa, ikastetxeko eta horien inguruko ingurumenaren kalitatearen eta iraunkortasunaren alde lan egiteko. Konpromiso horrek dakar ingurunea ezagutzeko interesa izatea, bidegabeba dena aldatu nahi izatea eta horretarako gogoia izatea, eta guztion orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzea.

Oinarritzko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren iraunkortasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte hartzea.



Eta kurtso honetan, zeintzuk dira PARTE HARTZAILIAK?

Eskolako Agenda 21 Arrasaten proiektua Legazpiko CEIDAK eta Udalako Ingurumen Eskolak (Arrasateko Udala) zuzentzen dute, eta herriko ikastetxeek parte hartu ahal dute.

Aurten beste ikastetxe bat gehiago animatu da. Beraz, Arizmendi Ikastola (Gazteluondo, Santa Teresa, San Viator Txiki, San Viator Handi eta Ferixalekua) eta Mesedeetako Andra Maria Ikastetxeaz gain Arrasateko Institutuko ikasleek eta irakasleek ere hartu dute parte, guztira 1.946 ikasle ari dira garatzen proiektu berria.

Aukeratutako gaiak:
URA

2003an zentroetan egindako ingurumen diagnostikoan ura gai interesgarrietariko bat bezala agertu zen; horregatik, kontuan hartuta euren curriculumean erraz agertzen den gaia dela, aurtur URAREN gaia lantzea erabaki zuten hiru ikastetxeek. Eskoriatzan ere, gai bera landu izan dute kurtso honetan eta hainbat lanetan bi proiektuak koordinatu izan dira.



Ikasleek egindako lana

Aurreko ikasturtean zaborraren gaia landu zuten eta aurtengo ikasturtean uraren gaiarekin jardun dute. Asko izan dira hilabete hauetan egindako lanak eta ekintzak, bai ikastetxeetan bai herriko hainbat txokotan. Ondoko azterketa eta jarduera hauek burutu dituzte, besteak beste:

- Bertako Deba eta Aramaio ibaiak, zein Oñati eta Urdaibaikoak aztertzerantz irten dira ikasleak.
- Ubideratutako edo kanalizatutako ibaietan harri-lubetak (eskollerak) ala hormigoia erabili den aztertu dute.
- Ibai ertzeko zein ibaiko flora eta fauna.
- Hondakin-urak ibaira doazen edo ez. Kloakak ikusi dituzte, adibidez, Garagartzako ibilgailu garbiketara guneko ur zikinak ibaira doaz.

- Ibaian nolako zaborrak dauden ikusi dute.
- Arrasateko kaleetan topa ditzakegun iturriak aztertu dituzte.
- Ur mota ezberdinak aztertu dira (metal ura, uretza...).
- Nondik datorren Arrasaten kontsumitzen dugun ura.
- Urkuluko araztegia bisitatu dute.
- Udalaren instalazioen kontsumoak aztertu dituzte
- Eta abar.

Gaia aztertu dugunean, konturatu gara uraren arazoa denona dela, eta denok egin genezakeela zerbait hori konpontzeko. Aurkeztu ditugun ondorio, proposamen eta konpromisoak prestatzen ikasle guztiok parte hartu dugu. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean eta, amaitzeko, ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.

Ura ikastetxeetan...



Arrasateko egoera aztertu dute gure ikasleek ikasturtean. Ura eta uraren problematikarekin erlazioatutako hainbat elementurekin froga eta ekintza batzuk burutu dituzte.



Herriko ibaiak, bai Aramaio bai Deba, aztertu dituzte. Informazio interesgarria lortu dute hainbat aktibitate burutu ondoren.



Udalako Ingurumen Eskolako Tanttalin maskotarekin Madariaga ibaia aztertu dute, eta laborategiko frogetan eta tailerretan lan egin ondoren konklusio interesgarriak jarri dituzte mahai gainean



...Ura arrasateko herrian

Eskolako Agenda zleko partaideak protagonista ez ohiko bilkura berezian

Arrasateko Ume eta Gazteak PROTAGONISTA

Arrasateko osoko bilkuren aretoak ez ohiko irudia agertu zuen maiatzaren 12an. Alkatea eta zinegotziez gain, hizlari bereziak egon ziren: sei eta hamasei urte arteko hainbat ikasle eta eurekin batera irakasle eta guraso batzuk. Ekintza horretan uraren inguruan egindako azterketaren emaitzak azaldu zizkieten udalbatzarriari. Ikasturtean egindako lanekin konklusio asko atera dituzte eta egoera hobetzeko proposamenak ere pentsatu dituzte. Eta, egun horretan, horien guztien berri eman zieten alkate eta zinegotziei. Aurrerantzean Deba ibaiaren inguruan ateratako konklusioak, egindako proposamenak eta hartutako konpromisoak agertzen dira:



Deba ibaian egindako azterketatik oso datu eta konklusio interesgarriak atera ditugu: ibai ertzeko landaretzaren errekupeazioa ez da kontuan hartzen eta ubide naturalak ez dira errespetatzen. Adibidez, Zerrajera inguruan oso ubide erregularra utzi da eta hondoa berdindu egin da.

Ubidean, zuhaitzen ezarpena lagundu egin behar da eta baldintza egokiak jarri behar dira hori gerta dadin, baina gure ustez, hori ez da egiten. Egun ikusten ditugun ubideraketa askotan, lanak amaitzean erreka dragatuta geratzen da. Lur eta lohi askorekin, ubidearen hondoa erregular eta berdinduarekin.

Askotan erreka garbitu behar dela entzuten dugu, baina ondo ulertu behar da kontzeptua; hau da, garbiketa ez da izan behar bakarrik estetiko eta hobe izango litzateke erreka errekupeatu behar dela esatea.

Gure erreketan ia ez dago animaliarik eta landaretza oso urria da.

Deba ibaian hainbat lan egiten ari dira eta "kolektorea" herri osoan laster martxan jartzeko asmoa dagoela azaldu digute.



Zerrajera inguruan ibaiak koipea eta olio duela konturatu gara eta kolektorea jadanik sartuta badago ez dugu horretarako arrazoirik ikusten.

Ibai ertzak toki batzuetan oso zikin daude (Eroski ostean, Aramaio ibaian,...).

Ibai ertzean bertako landaretza ez dena ere ugari ikusten da (Reynoutria japonica).

Aipatutako azterketa gure herriko ibaietan (Deba eta Aramaio) egin ondoren, eta hainbat neurri hartzeko asmoa dagoela ikusirik, proposamen batzuk egitera ausartu gara:

ubideraketa horien aldean egokiagoak dira harrien arteko zirrikituetan lurra dutenak, bertan, neurri batean, landaretza etor litekeelako eta horrekin batera konplexutasun biologikoa. Horretarako, zenbat eta etzanago izan lubeta, aberatsagoa izango da landaretza.

Ekosistema hori (ibaia) berreskuratzeko neurri egoia ibai-ertzeko landaretza berreskuratzea izango litzateke. Horretarako zuhaitz ilara bat, behintzat, komeni da ubidearen ertz bakoitzean. Sartzen diren espezieak bertakoak izan beharko ziren (bereziki haltza eta sahatsa) eta inbaditzaileak kendu.

Bestetik, herriak ibaia errekupeatzeko, zernolako neurriak hartzen ari diren jakiteko informazio kanpainak antolatu beharko ziren eta ibai ertzak garbitu beharko ziren maiztasun handiagoarekin.

Gure ibaien egoera hobetzeko gu ere prest gaude eta hainbat konpromiso hartu ditugu:

- Ibaia hondakinak ez botatzea eta norbait ikusiz gero zerbait botatzen, atentzioa eman.
- Ibai ondoan jarritako kartekek esaten dutena beteko dugu.
- Udalak ibaiak garbitzeko eguna antolatuz gero, gutako asko prest gaude ekin-tza horretan parte hartzeko.

Eta bukatzeko... Lanen erakusketa maiatzaren 30etik ekainaren 10era bitartean ikusgai

Era askotako materialak sortu dira kurtsoan eta horrek lan asko egin dela adierazten digu.

Monterongo erakusketa gelan ikasleen lanak eta uraren problematikari buruzko panelak egongo dira ikusgai. Aukera ezin hobea ura gure planetarentzat eta bizidun guztientzat zein garrantzitsua den jakiteko.



ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA:
arratsaldeko 6etatik 8ak arte

Egileak:



ARRASATEKO UDALA
UDALAKO INGURUMEN ESKOLA



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

